

ALTZA ▶ HISTORIA MINGEGIA

20 urte Altzari hautsa kenduz

Altzako Historia Mingegiak 20 urte beteko ditu hemendik gutxira; sorreratik lan handia egin du Altzari buruzko ahalik eta informazio gehien biltzeko


RAUL PEREZ

Casares kultur etxea zabaldu zutenean, 80ko hamarkada erdialdean, kultur etxearen baitan hainbat talde sortu ziren. Haietako bat historiarekin lotuta zegoen. Hura izan zen Altzako Historia Mingegiaren sorrera. Dena dela, handik gutxira, Casaresekin zibilbor hestea apurtu eta bere kabuz aurrera egitea erabaki zuen Mingegiak. Alegia, elkartea osatu zuten, bazkideak edukitzeko eta diru laguntzak eskatu ahal izateko.

Kultur astea izan zen Historia Mingegiaren lehen ekimena. Kultur aste horretan zuzenbait hitzaldi eskaini zituzten eta hitzaldi horien edukina liburu batean biltzea bururatu zitzaizen; 1988an, *Altzar Hautsa Kenduz* liburuak kaleratu zuten. «Lehen liburua idatzi genuenean, ez genekien zer kontatu izango genuen edo ez», dio Mingegiko kide Iñigo Landak. Historia Mingegiko lagunek ez zuten inondik inora pentsatu 18 urtetan beste 12 liburu kaleratuko zitzuztela. *Hautsa Kenduz* bildumako beste zazpi liburu kaleratu dituzte eta ikerketa lan gisa, beste bost.

Urteen poderioz, gero eta ekimen gehiago jarri dituzte martxan Historia Mingegiko lagunek. Garrantzitsuena, beharbada, Tokiko Bilduma da. Altzari buruzko hamaika argazki, agiri, liburu, mapa, bideo... Tokiko Bilduma etengabe hazten doan altxorra da. Historia Mingegiak Donostia Kulturarekin hitzarmena du Tokiko Bilduma lantzeko. Urtean, gutxi gorabehera, 140 lagunek jotzen dute Tokiko Bildumara. Haietako batzuk ikasleak dira, eta lanak egiteko baliagarria zaie Altzari buruzko informazioa. Beste asko haien arbasoei buruzko informazio bila joaten dira Casaresera, edo haien abizenaren jatorria ezagutzera.

Tokiko bildumarekin batera, webgunea da Historia Mingegi-



Iñigo Landa eta Juan Carlos Mora Historia Mingegiko kideak, ohi bezala, paper artean. R. PEREZ

20 URTEKO UZTA ▶

Hona hemen hogeitau urte hauetan Historia Mingegiak egindako lanaren isla.

Tokiko Bilduma. Altzako dokumentu, datu, argazki eta mapa ugari bildu dituzte eta nahi duenak Casaresen kontsulta ditzake.

Altzar.net. Webgunea. www.altza.net-en Historia Mingegiari buruzko informazioa sarean da. Egunkariak —tartean IRUTXULOKO HITZAK— Altzari buruz kaleratutako albisteak ere jartzen dituzte. Hemendik gutxira datu basea sarreratuko dute.

Altzar Hautsa Kenduz. Altzari buruzko zortzi liburu kaleratu dituzte. Altzako kultur etxeetan bertan daude salgai.

Artiga. Ikerketa lan gisa, bost liburu kaleratu dituzte *Artiga* izenburupean.

Estiba. Mingegiaren aldizkaria. Urtean hiruzpalau



Webgunearen irudia.

zenbaki kaleratzen dituzte. Pasarte historikoekin batera, gaurkotasuneko gaiak jorratzen dituzte.

Ganbara. XX. mendearen bigarren erdian lantegietan egin eta altxatarrek etxeetan zizuten tresnak bildu dituzte: josteko makinak, zurezko jostailuak...

ko sail kutunena. Tresna eraginkorra da haien burua eza-gutzera emateko. Historia Mingegiak eman berri dituen datuen arabera, ia 35.000 bisita izan zituzten. Mingegiko laguntzat datu oso ona da. Etor-kizunean ere, tresna garrantzitsua izango dela uste dute. Izan ere, orain arte paperean bildutako informazio guztia sarean jarriko dute. Horretan ari dira orain buru-belarri.

Datozen hilabeteetan ere izango dugu Historia Mingegiaren berri. 20. urtemuga ospatzeko, argazki liburuak kaleratu nahi dute. Horrez gain, *Lekuko* ak egitasmoa lantzen ari dira. Altzan aspalditik bizi diren hainbat lagunen —batzuk Altzan bertan jaiotakoak eta beste batzuk kanpotik etorritakoak— bizipenak jasoko dituzte DVD batean.

Historia Mingegiko lagunak, harro daude urte hauetan gutzitan egindako lanarekin. «Nekatuta gaude, baina ezin dugu utzi. Eginkizun honek ha-

AURTENGO ERRONKA

Altzari buruzko hainbat agiri, datu, mapa eta argazki webgunean jarriko dituzte luze jo gabe

rrapatu gaitu erabatu. Sei lagunek daramate Mingegiaren lema: Jon Serrano presidentea da eta kanpo harremanez arduratzen da; Iñigo Landa idazkaria da eta argitalpen saila du bere gain; Antxon Alfaro diruzaina da eta webgunea gaurkotzen du; Juan Carlos Morak Tokiko Bilduma lantzen du; Angel Calvo txagoak antolatzen ditu eta Javier Canterak ganbara zaintzen du.

Gustura, baina nekatuta

Iñigo Landa, Jon Serrano eta Antxon Alfaro sorreratik ari dira lanean. Urte batzuk geroago Juan Carlos Mora, Angel Calvo eta Javier Cantera gehitu zitzaizkien. Mingegikoek eskertuko lukete jende gehiagoren laguntza izatea.

Garai batean, Udalak dokumentazio-gunea sor zezan saiatu ziren. Hau da, Udalak, nolabait Tokiko Bilduma bere gain har zezan. «Ez genuen lortu, ordea. Guretzat garrantzitsua zen, baina ez zuten gure eskarera aintzat hartu. Pena da, izan ere, gu ez gara profesionalak eta gutako batek utziko balu umezurtz geratuko ginatke. Soldatapeko langileek lan honen etorkizuna bermatuko lukete», diote Iñigo Landa eta Juan Carlos Morak.

Tomasene zabaldu zutenetik, pixka bat zokoratuta geratu direla diote. «Liburutegia Tomasenera eraman dute eta guk, aldiz, Casaresen jarraitzen dugu. Tomasenen hemen baino jende gehiago izango da hemendik aurrera, eta guk hori beharko genuke, alegia jendea gertu izateko gure lanaren berri izan dezan». Edozein modutan, haiekin harremanetan jartzea ez da zaila: Casaresen dute egoitza eta bertan izan ohi da kideren bat arratsaldean Tokiko Bilduma lantzen. Eta interneten bitartez ere badago haiekin harremanetan jartzeko aukera, www.altza.net helbidean.